

POS-E05

*PD en Educación: Escuela, Lengua y Sociedad***TRANSLANGUAGING IKUSPEGI PEDAGOGIKOA: KONTZIENTZIA METALINGUISTIKOA LANTZEKO ESKU-HARTZEA BAT**

Oihana Leonet

UPV-EHU

Egun hezkuntza sistema eleaniztun gehienetan hizkuntzak isolatzeko joera errotuta badago ere, hizkuntzen ikuspegi elebakarraren aurrean, translanguaging indarra hatzen ari da (Cenoz & Gorter, 2015). Hizkuntzen arteko elkarerraginean oinarritutako joera honek bi irakurketa nagusi ditu: batetik, eleaniztunen hizkuntza praktika espontaneoak izendatzeko erabiltzen da, non hizkuntzen ateko mugak lausoak diren; bestetik, hezkuntza testuinguruan, bi hizkuntza edo gehiagoren aldibereko erabilera sistematikoa izendatzeko erabiltzen da. Bigarren honek, aukera eskaintzen die irakasleei hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak agerian jartzeko. Kontzientzia metalinguistikoa, ezinbesteko abilezia da ikasleen komunikazio gaitasuna areagotzeko. Kontzientzia metalinguistikoa ulertzen dugu forma linguistikoen eta esanahiaren arteko lotura egiteko gaitasuna (Jessner, 2014). Komunikazio honetan translanguagingean oinarritutako esku-hartze pedagogiko zabalago baten atal bat aurkezten da. Esku-hartzeren helburua EAEko curriculumeko hiru hizkuntza ofizialetan komunikazio konpetentzia garatzea zen. Esku-hartzean D ereduko lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako 72 ikasleek eta 3 irakasleek hartu zuten parte. Bi irakasleek euskara eta gaztelania, biak, irakasten zituzten; hirugarren irakasleak, berriz, ingelesa. Interbentzioak 12 hilabeteko iraupena izan zuen eta hiru ikasgaietako irakastordu guztietan gauzatu zen. Interbentziorako translanguaging materialak prestatu ziren: ikasgai bakoitzerako bi liburuxka. Hizkuntzen arteko mugak lausotu eta hauen arteko loturak egitea ahalbidetzen duten ariketen sekuentziak diseinatu ziren, beti ere EAEko egoera soziolinguistikoa kontuan izan da. Datu bilketarako kontzientzia metalinguistikoa neurtzeko test bat eta ikasleen hausnarketak egin ziren talde eztabaiden bitartez. Testa interbentzioaren hasieran eta amaieran egin zen eta 48 ikasleko kontrol taldeak ere parte hartu zuen. Emaitzek erakusten dute translanguagingek konpetentzia eleaniztuna garatzeko errekurso berri bat eskaintzen diela ikasleei. Erreferentziak: Cenoz, J., & Gorter, D. (Eds.) (2015) *Multilingual education: between language learning and translanguaging*. Cambridge: Cambridge University Press Jessner, U. (2014). *On Multilingual Awareness or Why the Multilingual Learner is a Specific Language Learner*. In *Essential topics in applied linguistics and multilingualism* (pp. 175-184). Springer International Publishing.